



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKAL
FONDOA



**GAZTENPATIA
PROIEKTUA:
PRAKTIKAK ETA GRADU
AMAIERAKO LANA
GARAPENERAKO
LANKIDETZAN**

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

I. Aurkezpena	03
II. Helburuak eta printzipioak	04
III. GAZTENPATIA ko partaideak	05
1. UPV/EHUko ikastegiak eta graduak	05
2. UPV/EHUko ikasleak	05
3. Practicumeko arduradunak	06
4. Unibertsitateko ikastegietako irakasle tutoreak	07
5. Euskal Fondoa elkarteko kide diren erakundeak	07
6. Tokiko erakundeetako begiraleak	07
7. Tokiko herrialdeetako gazteak	07
IV. Parte hartzen duen ikaslearen prestakuntza	08
V. Diru laguntzak	09
VI. Gaztepartia modu jasangarrian instituzionalizatzea	10
VIII. Proiektuko dokumentuak	11
VIII. Laburpena: faseak, jarduerak eta Gaztenpanti ko arduradunak	12



I. AURKEZPENA

Gaztenpatia kulturen arteko proiektua da, euskal gazteen eta lankidetzan eta elkartasun harremanetan dihardugun beste herrialde batzuetako gazteen arteko enpatia eta elkartasuna bultzatzen dituen.

Proiektuak UPV/EHU eta Euskal Fondoak (lankidetzan diharduten euskal entitate lokalen elkarte) bultzatutakoak dira, eta unibertsitateko ikasleei daude zuzenduta, praktikak edo Gradu Amaierako Lana (GRAL) garapenerako proiektuetan oinarrituta egin nahi dutenak lankidetzan arituta Euskal Fondoak Erdialdeko Amerikan, Kuban edo Saharako kanpamenduetan dituen erakunde bazkideetan.

Gaztenpatia Unibertsitateko praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko programaren parte da; UPV/EHUK 2003an abian jarritako programa da hori, abiapuntua izanik unibertsitatearen eginkizuna dela munduan dauden desparekotasunez jabetzen diren profesionalak sortzea. Proiektu hau 2016an jarri zen martxan, helburuetako bat izanik Agenda 2030an zehaztutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) unibertsitateak daukan konpromisoan aurrera egitea, eta, zehatzago, GJH 4 eta 10a betetzea, helburu horietan jasota baitaude, hain zuzen ere, garapenerako eta lankidetzarako hezkuntza, desparekotasunak murriztea eta gizartearen eraldaketa.

Euskal Fondoak lankidetzaren alde eta herrialde txiroetako erakundeekin, gizarte antolakuntzekin eta elkarteekin elkartasun harremanak lantzen dituzten tokiko 114 erakunderen lana koordinatzen du, eta lankidetzan dihardu UPV/EHUREkin duela hamar urte baino gehiago praktiken eta GRALeko programetarako diru laguntzak emanda (lehen, praktika eta Karrera Amaierako Proiektuen programa zen).



II. HELBURUAK ETA PRINTZIOAK



Gaztenpatiak aukera ematen die UPV/EHUko ikasleei praktikak, borondatekoaz zein nahitaezkoak, edo GRALa Euskal Fondoaren babesak daukaten garapenerako lankidetzak proiektuetan egiteko.

Helburu orokorra:

Gazteen arteko enpatia eta elkartasun harremanak lantzeko laguntza ematea, UPV/EHUko gazteak Euskal Fondoak lagundutako garapen proiektuetan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten gazteekin ekintza bateratuak egitera bultzatuz.

Helburu espezifikoak:

- UPV/EHUko ikasleei erraztasunak ematea praktika, curriculumekoak zein curriculumetik kanpokoak, eta GRALa Euskal Fondoak lagundutako garapen proiektuetan egin ditzaten
- Unibertsitateko ikasleak nazioarteko elkartasun eta lankidetzak balioetan sentsibilizatzea eta ikasleei arlo horretako prestakuntza ematea, gurean baino zailtasun handiagoak eta baliabide urriagoak dauzkaten herrialdeetako gazteek bizi duten egoera bertatik bertara ezagutzeko aukera emanda
- UPV/EHUko irakasleak parte hartzera bultzatzea praktika aldia edo GRALa garapenerako lankidetzak proiektuetan egin nahi duten ikasleei laguntza emateko eta ikasle horiekin tutore lana egiteko zereginean
- Ikasleek egiten duten lana ikusgarri egitea, ikasleak bere egonaldian zehar eta bueltan datorrenean egindako komunikazio jardueren bidez
- Euskal Fondoaren eta UPV/EHUren arteko lankidetzak formalizatu eta lankidetzari jarraipena ematea, batetik, ikasleek praktikak eta GRALa egin dezaten, eta, bestetik, unibertsitateko kideak sentsibilizatzeko eta prestatzeko jarduerak egiteko

Gaztenpatiak bat egiten du UPV/EHUren Praktika eta GRAL programaren oinarri diren printzipioekin, eta horiez gain, beste hauek ere baditu:

- **Prestakuntza:** ikasleek euren prestakuntza akademiko eta profesionala hobetzen dute, gauza berriak ikasteko eta trebetasun berriak garatzeko era ematen dieten esperientzien bidez
- **Enpatia:** gizakiak beste pertsona baten tokian jartzeko edota sentitzen duena antzemateko daukan gaitasun kognitiboa da, eta horretarako ikasleak motibazio sendoa izan behar du gurean baino zailtasun handiagoa eta baliabide urriagoak dituzten gizarteekin lankidetzan aritzeko
- **Gaztedia:** ikasleak jarduerak egingo ditu beste herrialdeko erakundeetan proiektuetan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten gazteekin batera
- **Komunikazioa:** **Gaztenpatian** programan egindako jarduerak ikusgarri egitea proiektuaren oinarri garrantzitsuetako bat da. Hortaz, UPV/EHUren eta Euskal Fondoaren web guneetan mikroguneak daude, batetik, ikasleek lankidetzak hau oinarri izanda egin dituzten praktikak edo GRALa modu sistematikoan argitara emateko, eta, bestetik, lankidetzak proiektuan dauden bitartean egunean-egunean bizi dutenaren berri emateko

III. GAZTENPATIAKO PARTAIDEAK



1. UPV/EHUko IKASTEGIAK ETA GRADUAK

Gaztenpatia parte hartu dezakete proiektuan interesa daukaten UPV/EHUko gradu eta ikastegi guztiek, proiektu honek aukera ematen baitu egiteko praktika

curricularrak, borondatezko praktikak eta GRALa, eta azken horiek unibertsitateko ikasle guztiei eragiten diete.

2. UPV/EHUko IKASLEAK

Gaztenpatia UPV/EHUko ikasle guztientzat irekita dagoen proiektua da, graduko titulua lortzeko praktika curricularrak (Practicuma) egin behar dituzten irasleentzat, zein borondatezko praktika aldia edo GRALa garapenerako lankidetzat proiektuetan egin nahi dutenentzat.

Betebeharrak:

- Graduko bigarren mailan edo goragoko mailan matrikulatuta egotea
- Unibertsitatearen eta Euskal Fondoaren artean sinatutako lankidetzat hitzarmenean jasotakoa betetzeko prest egotea
- Praktiketako edo GRALeko proiektuari buruzko informazioaren berri emateko edo informazio hori banatzeko konpromisoa hartzea


1. TAULA: komunikatzeko eta banatzeko konpromisoa, Gaztenpatiaren ikurra

Komunikazioa proiektuaren oinarri garrantzitsua da; horregatik egonaldi herrialdean egiten duen lanaren berri ematera behartuta dago ikaslea. Horrela, bada, gutxien dela astean birritan eman behar du informazio hori eskura dituen komunikazio baliabideen bidez (facebook, bloga, mikrogunea...).

Ikasleak jakin dezan zeri buruzko informazioa eman behar duen eta zein baliabide erabili, joan aurretik **Gaztenpatiari** eta komunikazioari buruzko prestakuntza zehatza ematen zaio arlo horretako gaitasunak bermatzeko.

Era berean, ikasleak konpromisoa dauka egonaldian egindakoari eta praktika aldian edo GRALa osatu bitartean ikasitakoari buruzko informazioa banatzeko, bai egonaldi herrialdeko herritarrekin, bai ikastegiko ikasleekin. Hori betetze aldera, tokiko begiraleekin eta/edo tutoreekin koordinatuko da.

Ikasleak lanerako eman zaion ekipoa zaintzeko eta egoera onean izateko betebeharra dauka, eta egonaldia bukatzean itzuli egin beharko du. Hortaz gain, lana jendaurrean aurkezteko prest egon behar da halako eskaririk izanez gero. Aurkezpena Euskal Fondoak edo UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzat Bulegoak horretarako berriaz antolatutako jardura batean edo ikastegiak antolatutakoren batean egin beharko du, eta horrela egin ezean, kreditua galduko du Garapenerako lankidetzaren inguruko unibertsitate praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko diru laguntzetarako deialdi egiten dun erabakiari jarraituz.



JARRAIBIDEAK

1. Ikasleak **Gaztenpatian** parte hartzeko eskaria egin behar du UPV/EHuren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko web gunean dagoen Gaztenpatian izena emateko orria beteta
2. Ikasle partaideak nahitaez egin beharko du bere ikastegian Garapenari eta Lankidetzari buruz urtero ematen den ikastaro monografikoa (aurreko urteren batean egin ez badu), eta, era berean, **Gaztenpatiaren** prestakuntza saio berezietara ere joan beharko da bidaiari joan aurretik
3. Ikasle partaideak aukera dauka proiekturako zehaztutako diru laguntza eskuratzeko (ikusirik diru laguntzen V. atala). Horretarako, Praktiketarako eta GRALerako diru laguntzen eskari orria bete behar du (Garapenerako Lankidetzaren Bulegok urtero, urtarrilean, apirilean eta urrian argitaratu ematen duen Unibertsitateko praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzaren egiteko diru laguntzen deialdiari atxikita egoten da eskari orria)
4. Ikasleak Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak emandako jarraibideak bete beharko ditu eta bulegotik eskatutako agiri guztiak aurkeztu: pasaporte, hegazkin txartela, atzerriko herrialdean lekua bilatzeko beharrezko diren datuak, begiralearen izena eta harekin harremanetan jartzeko datuak eta abar

3. PRACTICUMeko ARDURADUNA

Eginkizunak

1. **Gaztenpatiaren** berri ematea ikastegiko ikasleei, ikasturtearen hasieran edo praktiketako egutegian jasotakoaren arabera
2. Koordinazio lana egitea Euskal Fondoaren eta Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren artean ikaslearen jardura antolatzeke, bai **Gaztenpatiaren** proiektuetan, bai tokiko erakundeen proiektuetan
3. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoarekin adostutako datetan, bulegoari jakinarazi beharko diote ikastegiko zein ikasleek hartuko duen parte **Gaztenpatian**
4. Proiektuan parte hartzen duten ikasleen tutoreak izendatu, eta ziurtatzea tutoreak:
 - Badakizkiela bere eginkizunak eta dituen ardurak
 - Konpromisoa hartzen dutela ikaslearekin eta haren praktiketako proiektuarekin edo GRALarekin
 - Interesa hartzen dutela garapenaren arloan ikasleak egingo duen proiektua ondo ezagutzeko
5. Gestio lana egiten dute Euskal Fondoaren eta ikastegiko zuzendaritzaren artean **Gaztenpatian** parte hartzen den lehenengo urtean sinatu beharrezko hitzarmena zehazteko, eta haren kopia bidali behar dute UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegora. Era berean, hitzarmena bete egiten dela egiaztatzea beharko dute ikastegian osatutako **Gaztenpatiaren** Jarraipenerako Batzordeko kide baitira
6. Garapenerako Lankidetzaren Bulegora ikastegian **Gaztenpatiak** izandako garapenari buruzko informazioa bidali behar dute ebaluazioa egiteko

4. UNIBERTSITATEKO IKASTEGIETAKO IRAKASLE TUTOREAK

Eginkizunak

1. Ikasle bakoitzarekin praktika proiektuko edo GRALeko helburuak eta jarduera plana zehazten dituzte. Praktiketako eta GRALaren ezaugarri akademikoak tokiko erakundeek antzemandako beharrezanekin bat datozela egiaztatzeko, ezinbestekoa da tutoreek ondo ezagutzea ikasleak beteko duen garapen proiektua
2. Ikasleei lagun egiten diete eta babesa eta aholku ematen praktikak edo GRALa egiten ari diren bitartean; horretarako, aldian-aldian, komunikazioak egiten dituzte, paperean edo bitarteko birtualetan, horrela zuzenean jakiteko ikaslea zelan ari den betetzen bere lana, zelakoak diren bere harremanak tokiko erakundearekin eta jendearekin, zein arazo dituen eta abar
3. Ikasleen praktika planaren edo GRALaren jarraipena egiten dute aldian-aldian begiraleekin¹ egindako komunikazioen bidez eta haiek egindako txostenak xoinarri hartuta
4. Ikasle bakoitzaren praktiken edo GRALari buruzko azken txostena egiten dute
5. Garapenerako Lankidetzaren Bulegora ikastegian **Gaztenpatia**ko proiektuak izandako garapenari buruzko informazioa bidali behar dute ebaluazioa egiteko

5. EUSKAL FONDOA ELKARTEKO KIDE DIREN ERAKUNDEAK

Ikasleak Euskal Fondoak Guatemala, El Salvador, Nikaragua, Kuba eta Saharako Kanpamenduetan dituen erakunde bazkideekin² lankidetzan egingo ditu bere praktikak edo GRALa, erakunde horiek, betiere, **Gaztenpatia**ren proiekturen batean ari badira.

Gaztenpatiak erakundeetan dituen koordinatzaileen eginkizunak:³

1. Ikasleari ostaturatua eta laguntzarako logistika bermatzen dizkio herrialdean dagoen bitartean. Erdialdeko Amerikan, eginkizun horiek behar bezala betetzen direla egiaztatzeko ardura daukana Euskal Fondoak eskualdean daukan ordezkaria da
2. Erakundeetan praktikak edo GRALa egiten ari den ikasle bakoitzak izango duen begiralea izendatzen du
3. Ikasleak garatuko duen garapen proiektua⁴ zehazten du bai eta ikasleak behar duen laguntza zehatza ere
4. Ikaslea zein gazte talderekin arituko den lankidetzan zehazten du, eta helburuei eta jarduerari buruzko informazioa ematen dio, hartara praktiketan edo GRALean txerta dituzten elkarren artean egindako jarduerak
5. Garapenerako Lankidetzaren Bulegora erakundeetan **Gaztenpatia**ko proiektuak izandako garapenari buruzko informazioa bidali behar dute ebaluazioa egiteko

6. TOKIKO ERAKUNDEETAKO BEGIRALEAK

Ahal den heinean, begiraleak izaten dira ikasleak lankidetzan garatzen duen proiektuaren arduradun zuzenak.

Eginkizunak

1. Ikasleari lagun egiten dio herrialdean dagoen bitartean, eta hark egindako lana gainbegiratzen du kontuan hartuta praktiketako edo GRALerako plana
2. Ikaslearen jarraipen eta ebaluazioari buruzko informazioa ematen dio UPV/EHUko tutoreari, aldian-aldian zuzenean izandako komunikazioaren bidez
3. Garapenerako Lankidetzaren Bulegora erakundeetan **Gaztenpatia**ko proiektuak izandako garapenari buruzko informazioa bidali behar dute ebaluazioa egiteko

7. TOKIKO HERRIALDEETAKO GAZTEAK

Gaztenpatia proiektuak aukera ematen die UPV/EHUko ikasleei beste herrialde batzuetako gazteekin elkartasun eta enpatia loturak ezartzeko, praktikak edo GRALa egiten hari diren lurraldeko gazteekin batera jarduerak egin.

Helburu hori lortze aldera, praktiketako edo GRAL proiektu bakoitzerako gazte talde batekin jartzten da harremanetan ikaslea eta elkarrekin egingo dituzten jarduerak zehazten zaizkio. Tokiko erakundeak arduratzen dira informazioa emateaz gazte taldeekin egin beharreko jarduera plana osatu ahal izateko.

1. Tokiko begiralea: tokiko erakundeak dira eta ikaslea praktikak egiten dagoen bitartean hari laguntza eman eta haren lana gainbegiratzen dute.
 2. Tokiko erakundeak: Euskal Fondoaren erakunde bazkidea, ikasleak lankidetzan egingo duen proiektua garatzen duen erakunde. Normalean, udala edo udalari edo beste erakunde batzuei lotutako erakundeak, edo herrialde txiroetako gizarte zibilak eraturako erakundeak.
 3. **Gaztenpatia** tokiko erakundeetan dituen koordinatzaileak: haien esku dago ikaslea herrialdean dagoen bitartean hari laguntza logistikoa ematea eta, azken finean, koordinatzaileek bermatzen dute **Gaztenpatia** behar bezala beteko dela beren erakundeetan.
 4. Garatzen den proiektua: tokiko erakundeek betetzen dituzten proiektuak dira, eta horietan lankidetzan aritzen da ikaslea bere proiektuaren edo GRALaren oinarri izanik lankidetzaren hori.

IV. PARTE HARTZEN DUEN IKASLEAREN PRESTAKUNTZA



Ikasle partaideak nahitaez egin beharko du bere ikastegian Garapenari eta Lankidetzari buruz urtero ematen den ikastaro monografikoa, eta, era berean, **Gaztenpatiaren** prestakuntza saio berezietara ere joan beharko da bidaian joan aurretik.

Gaztenpatian parte hartuko duten ikasleen ikastegietan ematen diren garapen eta lankidetzari buruzko ikastaro monografiak honako egitura dute:

- 20 ordu ikastegian ohi lantzen diren gaiak, eta beste 4 ordu komunikazioa eta lankidetzari buruzkoak
- Gainontzeko 26 orduetan (guztiak edo zati bat), helmuga diren herrialdeei, hango kulturari, tokiko erakundeek egiten dituzten proiektuei eta abarri buruzko irakurraldiak, gogoetak, tailerrak, aurkezpenak edo lanak

Prestakuntzaren azken ordu horiek Euskal Fondoak antolatzen ditu eta **Gaztenpatiaren** proiektuak bertatik bertara ikusi dituzten tutoreek edo mota honetako praktikak edo GRALa egin duten ikasleek ere har dezakete parte.



V. DIRU LAGUNTZAK



Gaztenpatia Garapenerako lankidetzak praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko programako partaide da, eta UPV/EHU eta Euskal Fondoak egindako ekarpenekin osatutako fondo ekonomikoa dauka, diru horren helburua izanik ikasle partaideei laguntza ematea osasun aseguru eta bidaia ordaintzeko.

Diru hori esleitzeko, UPV/EHUK urtean 3 deialdi egingen ditu: urrian eta urtarrilean, curriculumeko praktikak edo GRALa egitera urtarriletik aurrera doazen ikasleentzat; apirilean, udan doazentzat borondatezko praktikak edo GRALa egitera.



VI. GAZTEPANTIA MODU JASANGARRIAN INSTITUZIONALIZATZEA



Gaztenpatia UPV/EHuren Garapenerako lankidetzak praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko programaren arloan instituzionalizatzeko, beharrezkoa da unibertsitateko gero eta ikastegi gehiagotan egitea ikusgai proiektua, eta, era berean, estrategia eraginkorrak ezartzea gero eta irakasle gehiagok har dezan parte Gaztepantiako ikasleekin tutore lana egiten.

Horretarako, Garapenerako Lankidetzak Bulegoak irakasleei zuzendutako prestakuntza eskaintza bultzatuko du, oro har garapenerako unibertsitate lankidetzarekin zerikusia daukaten gaiak lantzeko, eta, zehatzago, Gaztepatiari eta ikasleek egiten dituzten proiektuei buruzkoak lantzeko. Ikastaroak UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren bidez emango dira.





VII. PROIEKTUKO AGIRIAK

1. agiria: **Gazte** pantian parte hartzeko eskari orria www.ehu.eus/eu/web/oficop/gaztenpatia
2. agiria: Praktiketarako eta GRALerako laguntza eskaria (1. eranskina: Unibertsitateko praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko diru laguntzen deialdia)
3. agiria: Euskal Fondoaren eta unibertsitateko ikastegiaren arteko lankidetzaz hitzarmena
4. agiria: banakako azken txostena (3. eranskina: Unibertsitateko praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko diru laguntzen deialdia)





VIII. LABURPENA: FASEAK, JARDUERAK ETA GAZTENPATIAKO ARDURADUNAK

FASEAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK
I. FASEA ESKARIEN AURKEZPENA	<ol style="list-style-type: none"> Hedakundea on line bitartekoen bidez Gaztenpatia ikastegietan aurkeztea Gaztepatiaren Jarraipen Batzordeak eratztea ikastegi bakoitzean Ikasleek Gaztenpatian izena emateko orria betetzea Lankidetzeta Bulegoaren web gunearen bidez 	<ol style="list-style-type: none"> Komunikazio bulegoa Practicumaren arduradunak, Euskal Fondoaren eta Lankidetzeta Bulegoaren laguntzarekin Kideak: practicumeko arduraduna, Gaztenpatiako koordinatzailea eta Lankidetzeta Bulegoa Lankidetzeta Bulegoak izena emateko eskariak hartzen ditu, ikastegiekin egiaztatzen ditu eta horren berri ematen dio kasuan kasuko jarraipen batzordeari
II. FASEA PRESTAKUNTZA ETA PRAKTIKAK ETA GRALa ZEHAZTEA	<ol style="list-style-type: none"> Ikasleen tutoreak izendatzen dira Ikasleek garapenari eta lankidetzari buruzko ikastaro monografikoetan parte hartzen dute eta Gaztenpatiaren saio berezietan GRALeko proiektuak zehazten dira 	<ol style="list-style-type: none"> Practicumeko arduradunak Lankidetzeta Bulegoa, Gaztenpatiako koordinatzailea, Euskal Fondoa, eta Gaztenpatian parte hartuko duten ikasleak Ikasleak eta tutoreak, Euskal Fondoaren laguntzarekin
III. FASEA PROIEKTUA GAUZATZEA ETA JARRAIPENA	<ol style="list-style-type: none"> Ikasleek praktikak edo GRALa egiten dute aukeratutako herrialdean, eta, aldian-aldian, lanari buruzko komunikazioa egiten dute Begiraleek ikaslearen lana gainbegiratzen dute eta txostenak igortzen dizkiete tutoreei 	<ol style="list-style-type: none"> Ikasleak, begiraleak, Gaztenpatia tokiko erakundeetan dituen koordinatzaileak Tokiko begiraleak
IV. FASEA PRAKTIKEN EDO GRALaren EBALUAZIOA	<ol style="list-style-type: none"> Banakako azken txostena. Egonaldia bukatzean egingo du eta Lankidetzeta bulegora eramango du bulegoan aztertu eta sistematizatu dezaten Tutoreek praktikak edo GRALa ebaluatzeko txostena egiten dute 	<ol style="list-style-type: none"> Ikasle partaideak Irakasle tutoreak, begiraleek bidalitako jarraipen txostenak oinarri hartuta
GAZTENPATIAREN EBALUAZIOA	<ol style="list-style-type: none"> Ebaluaziorako bilerak ikasleek eta tutoreekin Begiraleek eta tokiko erakundeetan Gaztenpatia dituen koordinatzaileek proiektuaren ebaluazioa egiteko osatutako galdetgia betetzen dute eta Lankidetzeta Bulegora 	<ol style="list-style-type: none"> Lankidetzeta Bulegoa eta Euskal Fondoa Lankidetzeta Bulegoa eta Euskal Fondoa